

donostia**kultura**.com
San Sebastián, ciudad de la cultura



Donostiako Aste Nagusia

Hizkuntza erabileraren neurketa

AURKIBIDEA

1. SARRERA
2. METODOLOGIA
3. BEHAKETAREN EMAITZA
 - 3.1. DKTik ANTOLATUTAKOAK
 - 3.1.1. Idatzizko materialaren azterketa
 - 3.1.1.1. Egitarauak
 - 3.1.1.1.1. Dosierra
 - 3.1.1.1.2. Programazio liburuxka
 - 3.1.1.1.3. Su artifizialen prentsa dosierra
 - 3.1.1.1.4. Bozka txartela
 - 3.1.1.1.5. Esku egitarauak
 - 3.1.1.1.5.1 Aste Nagusiko egitaraua
 - 3.1.1.1.5.2 Su Artifizialen egitaraua
 - 3.1.1.1.5.3 Aste Erraldoiaren egitaraua
 - 3.1.1.1.5.4 Antzerkia
 - 3.1.1.1.5.5 Folklorea
 - 3.1.1.1.5.6 Bandak
 - 3.1.1.1.5.7 Arrantza txapelketa
 - 3.1.1.2. Kartelak
 - 3.1.1.2.1. Orokorra
 - 3.1.1.2.2. Su artifizialak
 - 3.1.1.2.3. Faroletakoak
 - 3.1.1.2.4. Bestelakoak
 - 3.1.1.3. Web gunea
 - 3.1.1.4. Prentsa oharak, publizitatea,...
 - 3.1.2. Ahozko erabileraren azterketa
 - 3.1.2.1. Prentsaurrekoak
 - 3.1.2.2. Bulegoko harrera
 - 3.1.2.3. Ekitaldien aurkezpen eta ekintzak
 - 3.2. BESTE ELKARTE BATZUEK ANTOLATUTAKOAK
 - 3.2.1. Ahozko erabileraren azterketa
4. EKITALDI MOTAREN ARABERAKO SAILKAPENA
 - 4.1. HAURRAK
 - 4.2. MUSIKA
 - 4.3. KIROLAK
 - 4.4. FOLKLOREA
 - 4.5. SU ARTIFIZIALAK
 - 4.6. ANTZERKIA
 - 4.7. BESTEAK
5. ONDORIOAK ETA BALORAZIOA
 - 5.1. DKTik ANTOLATUTAKOAK
 - 5.1.1. Idatzizko materialaren azterketa
 - 5.1.2. Ahozko erabileraren azterketa
 - 5.2. BESTE ELKARTE BATZUEK ANTOLATUTAKOAK
 - 5.2.1. Ahozko erabileraren azterketa
 - 5.3. ORO HAR

1. SARRERA

Azken hamazortzi urteetan, BAGERA Donostiako Euskaltzaleen Elkartek Donostiako Aste Nagusiko hizkuntza tratamendua aztertu du. Azterketa horrek euskararen erabilera areagotzea du ardatz, euskararen erabilera eta normalizazioa sustatzeko bidezkoa iruditzen baitzaigu, uneoro euskararen erabilera eta egoera ezagutzea.

Behaketaren zergatia

Euskararen normalkuntza prozesuan, ezinbestekoa da ekintza instituzionala eta Donostiako gizarte osoaren parte hartzea bultzatzea; abiapuntu honetatik, BAGERA Donostiako Euskaltzaleen Elkartek Donostiako Aste Nagusian euskararen erabilera zein egoeratan aurkitzen den jakin nahi du, bai instituzioen aldetik, Donostia Kulturaren aldetik, alegia, eta bai gizartearen aldetik.

Garrantzitsua iruditzen zaigu eguneroko bizitzan euskararen presentzia bermatzea. Aldi berean, jai giroan ere, ezinbestekoa iruditzen zaigu euskararen erabilera suspertzea, euskal kulturarekin batera.

Euskararen erabileraren neurketa egiteko orduan, kontuan hartu behar dugu Donostiaren egoera turistikoa udan zehar. Abuztuan zehazki, Donostiatik kanpoko jende ugari etortzen da. Hori dela eta, egitarauaren aniztasuna beharrezkoa ikusten dugun bezala, argi ikusten dugu euskarari merezi duen tokia eman behar zaiola, hots, gutxienez gazteleraren pareko presentzia izan behar duela eta hizkuntza gutxitua den heinean lehentasunezko trataera behar du.

Euskara, gaztelerarekin batera, hizkuntza ofiziala da Donostian eta Aste Nagusia antolatzeke garaian, donostiarren hizkuntza eskubideak kontuan hartu behar dira. Donostia Kulturaren eta erakunde pribatuen euskararen erabilerarik handiena lortzea donostiarren onurarako da.

Donostiako Aste Nagusian, euskara mugarik gabe erabilia izatea errealitate bihur daitekeen ametsa da eta, horretarako, ezinbestekoa da gizarte sektore guztien partaidetza eta inplikazioa lortzea .

Azken finean, hizkuntza funtzionamenduaren aldaketak mailakatua eta naturala izan behar du, eta sektore guztietan gauzatu behar da, baita aisialdian ere.

2. METODOLOGIA

Donostiako Aste Nagusiko euskararen erabileraren neurketa aurrera eraman ahal izateko, honako pausoak eman ditugu:

Urtero egiten dugun bezala, Donostia Kulturako Jaietako arduradunekin harremanetan jarri gara aurtengo egitarauaren nondik norakoen berri jasotzeko eta hobetu beharreko arloetan gure laguntza eskaintzeko.

Ondoren, behatzaile taldea osatu eta beraiekin harremanetan jarri gara. Aurten 25 behatzaile inguru izan ditugu eta beraiekin egindako bileran, behaketa nola egin behar zuten azaldu zaie.

Behatzaile taldeak jasotako zehaztasunak honakoak izan dira:

Jarduera: Su artifizialak/ kontzertuak/ tailerrak/...

Eguna: Jarduera egin den egunaren data

Ordua: Jarduera egin den ordua

Lekua: Jarduera garatu den tokia

Ahozkoak: (Ahal dela portzentajeak erabili)

Aurkezpenak: aurkezpenik izan bada, hizkuntza bakoitzean erabili den portzentajea aipatu (adibidez: %75 euskaraz, %25 gazteleraz).

Jarduera: ekintzaren garapenean hizkuntzarik erabili bada, erabili den hizkuntza adierazi behar da.

Bozgorailua: Bozgorailuz zerbait esan bada, zein hizkuntzan izan den adierazi.

Idatzizkoak: (Ahal dela portzentajeak erabili).

Kartela: Kartelik badago, adierazi zein hizkuntzatan dagoen idatzita.

Bi orrikoak / esku egitarauak: mota horretako euskarririk balego, adierazi zein hizkuntzatan dauden idatzita.

Publizitatea: publizitate euskarririk balego, adierazi iragarleak zein hizkuntza erabili duen.

Bestelakoak: beste euskarri motarik balego, adierazi zein motatakoa den eta zein hizkuntza erabili den.

Ikusle/ entzule kopurua / adina: adierazi zein ikusle mota den eta ahal dela kopurua gutxi gorabehera.

Oharrak: aurrekoez gain, beste ezer izanez gero, azalpenak adierazteko tartea.

Behaketa egiteko, ahal izan diren ekitaldi gehienak neurtu dira, baita idatzizko materiala ere.

3. BEHAKETAREN EMAITZA

3.1. DONOSTIA KULTURAtik ANTOLATUTAKOAK

3.1.1. Idatzizko materialaren azterketa

3.1.1.1. Egitarauak

3.1.1.1.1. Dosierra

146 orrialdeko dosierra da aurtengoa, oro har bi hizkuntzatan idatzita dagoen arren, lehenik euskaraz eta ondoren gazteleraz (euskarak lehentasuna izanik). **AKATSEZ JOSITA DAGO (erdarakadak, gaizki osatutako esaldiak, akats gramatikalak...) eta horretaz gain, orokorrean oso euskara artifiziala erabiltzen da. Akats asko urtero errepikatzen direnak dira. Ez ditugu akats guztiak zerrendatuko (asko baitaude) baina atal bakoitzean zenbait aipatuko ditugu.**

Dosierra atalka

Azalean, Aste Nagusiko kartela bi hizkuntzatan ageri da. Lelo nagusia "Aste Nagusia" lehenengo euskaraz (hizki handiz eta urdinez) eta ondoren gazteleraz (hizki txikiz eta beltzez). Lelo nagusiaren azpian data ageri da bi hizkuntzatan ("Abuztua 11-18 Agosto Donostia/San Sebastian").

Prentsa dosierraren hasieran aurkibidea ageri da, lehenengo euskaraz eta ondoren gazteleraz. Baina badira akats batzuk euskarazko bertsioan, urtero aipatzen ditugunak (Sagües, feriala).

Jarraian **kartel lehiaketaren** irabazlearen azalpena dago, lehenengo euskaraz (letra handiagoan) eta ondoren gazteleraz (hizki txikiagoan).

Festa hasierako kanoikada atalak, "Erraldoi eta buruhandiak", "Goazen kanoikadara!!", "Er(r)itmoarekin kanoikadara!!", "Festa hasierako kanoikada" eta "Kontzertua" azpiatalak biltzen ditu. Bi hizkuntzatan badago ere, lehenengo euskaraz (hizki handiagoz eta lodiz) eta ondoren gazteleraz, akats ugari topatu ditugu.

- "Goazen kanoikadara" atalean, euskarazko testuan kale izenak gaizki idatzita azaltzen dira: *31 de agosto* (Abuztuaren 31 kalea) eta *Boulevardra* (Bulebarra edo Boulevard). Horretaz gain, kale baten izena gaizki deklinatua dago: *Alderdi Ederra iritsiko dira*.

- "Festa hasierako kanoikada" atalean, berriz honako akatsak topatu ditugu: "*Gure aurtengo gonbidatua(k)*", "*Donostiako Piratak*" kolektiboak, *abestuko du*" (*ergatiboa falta zaio*). Bestetik iaz aipatzen genituen akatsez gain honako esaldia topatu dugu: *Arratsaldeko 19:02etan* (19:02ean), parte hartzen *duten* taldeak (taldeek izan beharko luke) *Hiriko Erdia* (Erdialderantz) eta *Parte Zaharraruntz* (Zaharrerantz) *abiatuko dira*.

Musika Saguesen atalean, talde bakoitzari buruzko ezaugarriak azaltzen dira egunez egun. Guztia bi hizkuntzatan badago ere, euskarazko atalean maila eskasean idatzitako testuak topatu ditugu. Testu batzuetan euskararen maila ez da behar bezalakoa, nabaria da gaztelaniatik hitzez hitzeko itzulpena egiten dela. Zenbait aipatu arren:

*Miloi lagun baina gehiagok entzuten dute bere saioa... Dj **residentea** bezala... Juan Mari Beltranen ikasleak **izandakoa**, 2002an beren lehen diska kaleratu **zuten**... **Ezustekoa**, lotsakagabea eta oso-oso berezia da... Kanean sustraitutako hizkuntza xumea eta lotsagabea erabiltzen du, asfaltoa bezalakoa... Anai-Arrebak talde pasaitarra (Donibanekoa) Arabatakada maketa Lehiaketa irabazleak dira. Anai-arrebak, alde batetik Matxet eta Margarita Andereñoa (ahotsak) anai arrebak eta, beste aldetik, Etxarri anaiak, Kapitaina (gitarra) eta Manu (teklatura eta sinteak)osatzen **dute**... betiere harrapatu izan baititu bere sentsibiltate eta intuizioarekin...*

Musika bandak, Dantza Taldeak, Gaueko erromeriak atalei dagokienez, izen guztiak euskaraz eta gaztelaraz irakur daitezke. Euskarazko testua txukun idatzita dago.

Zurriola Kultur Irekiari buruzko emanaldien zerrenda euskaraz eta ondoren gaztelaraz idatzita dago. Hala ere, euskarazko testuak maila eskasean idatzita daude.

Kursaal Gune Zabala atalean, gau bakoitzari izenburu ezberdin bat jarri zaio. Euskaraz idatzita dauden bi kasutan, gaztelaratik hitzez hitz itzulitakoak dira, akatsez josiak daude eta ez dira ulertzen (*Gude djs festa **altsatzen** du!!* eta *Lakicabe djs gaua **festibal!!!***).

Antzerkiari buruzko informazioa bi hizkuntzatan ageri den arren, *Parcela 85* antzezlanaren informazioan akats gramatikala topatu dugu (*bi **personaren** historia kontatzen digu*).

Kaleetan zehar egongo diren **Easo plazako bertsolariei, musika taldeei, Kirol ekitaldiei, Herri kirolei, Haur jolasei, Ekitaldi gastronomikoei, Azokei** buruzko zerrenda eta informazioa bi hizkuntzatan dago, lehenik euskaraz eta ondoren gaztelaraz lehentasuna euskarari emanez.

Erraldoi eta buruhandien egitaraua bi hizkuntzatan badago ere, orduen deklinazioan akatsak daude (18:30e(t)an, 20:30e(t)an) eta testua euskara traketsen idatzita egoteaz gain, akatsak topatu ditugu (*errege marokoar **talde bat** hiritik desfilatu **zuten**; Donostia hiriaren **parerako** erraldoiak eraikitzeak mandatua egin **zuten**; CAT-a, erraldoiei zentzoa emango zien festa bat; Itzurun Elkartek aurten ekartzen ditu zenbait berri; Benefizio guztiak **umen** gaixotasunen **ikerkuntzetara joango** dira; umeen leuzemiak **aztetzen** dituzte; zoritzarrez, ume askok ezingo dute **Aste Nagusitaz** gozatu beste donostiarrok bezala, **ospitaleratutak** daude eta; bere maskuriak **alde bate** utziko dituzte; **inahuteriak**; Aste Erraldoiaren **agurra** berezi bat; erraldoiek lau dantza bereziak prestatu ditugu ...).*

Zezen suzkoaren datuak eta historia bi hizkuntzatan idatzita daude; bietan lehena euskara da. Hala ere, gaztelarazko hitzak topatu ditugu euskarazko testuan (***Monosabi** eta **maioral***).

Donostiako Aquarium Itsaso eta Zinemaren IV. Astea atalean ere, akats, erdarakada eta gaizki osatutako esaldi ugari aurkitu ditugu (*Bizkaiko kostaldeko **peziolaturik** bisitatuenetakoa da; Untziaren hondakinak, bere inguruan, bizitzako oasia sortzen **dute**; Bilboko portua **bainatzen** duen urak; Hiru aintzirak sortu **dira**; 1900 **ezpezie** arrain; **bortxatia** eta odoltsua; elkarte batek **animal** aparteko honen **misterioak** ...).*

Euskal Kantak eta Itsasoa atalean ere, euskarazko testuan akatsak daude (*Aquarium-ean burutuka da kontzertua, **hura** dohainik eta eserleku mugatukoa izango delarik ...*).

Azkenik, Paseo Berrian eta Portuan jartzen diren ferien inguruko informazioa bi hizkuntzatan irakur dezakegu, baina atalaren izenburua "**feriala**" gaztelerazko hitza da, euskaraz ez da existitzen.

Oro har euskara lehen hizkuntza izan arren, iazko hainbat akats errepikatzen dira eta horretaz gain, gramatikalki egoki egon daitezkeen arren, ondo ulertzen ez diren hainbat testu eta erdarakada topatu ditugu gaztelerazko bertsioetik hitzez hitzezko itzulpena egiten delako. Urtero aipatzen dugun kontua da eta onartezina iruditzen zaigu udaletik ateratako testuetan horrelakoak ikustea eta behin eta berriz errepikatzea.

3.1.1.1.2. Programazio liburuxka

Azalean aurtengo Aste Nagusiko kartela ageri da, dossierrean aipatu bezala, lelo nagusia "Aste Nagusia" lehenengo euskaraz (hizki handiagoz eta kolore urdinean) eta ondoren gazteleraz (hizki txikiagoan eta beltzean) idatzita dago. Lelo nagusiaren azpian data ageri da bi hizkuntzatan (*Abuztua 11-18 Agosto Donostia / San Sebastian*).

Kontrazalean, berriz, Amstelen iragarkia ageri da; iragarki honen goialdean "*Premium quality, la medalla de oro, Amsterdam Aº 1883*" dio. Azpian hizki txikiz, euskaraz eta ondoren gazteleraz beste esaldi bat ageri da "*Amstel kontsumo arduratsuaren alde %5 Alk.-Bol / Amstel recomienda el consumo responsable. Alc 5% vol.*". Aipatzekoa da lehen aldiz euskaraz idatzita izan dela.

Bigarren orrialdean babesleen eta laguntzaileen logotipoak azaltzen dira, bi hizkuntzatan aurkeztuta daude eta iragarki etxeek ez dute lelorik erabili. Hirugarren orrialdean, Juan Karlos Izagirre alkateak sinatutako agurra ageri da bi eletan (lehenengo euskaraz eta ondoren gazteleraz).

Jarraian egitaraua egunez egun azaltzen da, ezkerrean gazteleraz eta eskuinean euskaraz. Euskarazko bertsioan, Dossierrean aipatu ditugun akatsak ez dira agertzen. Testuak euskara txukunean idatzita daude.

Aste Nagusiko jarduera guztiak liburuxkaren erdian dagoen taula batean laburbiltzen dira. Jarduera gehienak euskaraz (129) idatziak daude, beste batzuk gazteleraz (32), taldeen izena jatorrizko hizkuntzan (45) eta bi eletan (2) azaltzen dira. Euskarazko bertsioan, behin eta berriz errepikatzen dugun "Trinitate" kalearen izena gaizki idatzia dago (*Trinidad plaza*, 6 alditan). Taularen atzean, astean zehar izango diren beste ekintzen azalpenak daude; Aste Nagusiko III. Poker Texas txapelketa, padel txapelketa, eskulangintza azoka, karanbola billarra, Zurriola Kultura Irekia, nekazal produktuen azoka berezia, Euskararen Donostia ibilbidea eta antzerkia euskaraz, Erakusketen informazioa gazteleraz; eta bi hizkuntzetan, helduentzako eta haurrentzako barraken informazioa.

3.1.1.1.3. Su artifizialen prentsa dosierra

Azalean eta kontrazalean, kartel ofiziala ageri da bi eletan; "Su Artifizialen 49. Nazioarteko Lehiaketa" jartzen du lehenengo, eta "49 Concurso Internacional de Fuegos Artificiales" azpian (hizki tamaina askoz ere txikiagoan). Eskubian, data eta hiriaren izena

bi hizkuntzatan irakur daiteke (Abuztua 11-18 Agosto. Donostia/San Sebastian). Kartelaren azpian, prentsa dossierraren izenburua, lehenengo euskaraz eta ondoren gazteleraz hizki tamaina txikiagoan dago.

Hurrengo orrietan aurkibidea, kartel lehiaketaren irabazlearen informazioa, egitaraua, piroteknien informazioa, Aste Nagusiaren amaiera, sariak, epaimahaien berri eta segurtasun neurrien dekalogoak agertzen dira. Informazio guztia bi hizkuntzatan irakur badaiteke ere (lehenengo euskaraz eta letra lodiz), zenbait akats topatu ditugu: 1) "*Bete kupoi bat, egunero, eta sartu autobusean Alderdi Ederreko Euskaltelen karpan* (*"rellena un cupón por día y deposítalo en las urnas ubicadas en el autobús o la carpa de Euskaltel en Alderdi Eder"*)," 2) Epaimahai gaztea atalean, maila eskasean idatzita dago testua eta horrez gain akatsak daude, "*ondoren denak elkartzen dira beraien iritziak aldatzeko*" (*elkartrukatzeko* edo antzeko zerbait izan beharko luke).

3.1.1.1.4. Botazio-txartelak

Bi motatako botazio-txartelak kaleratu zituzten Donostiako Su Festaren Nazioarteko 49. Lehiaketan parte hartzeko. Bata, mugikorraren bidez bozkatzeko azalpenak emanaz, alde batetik euskaraz eta bestetik gazteleraz. Bestea, botazio-txartelen bidez. Bertan, txartela nola betetzen den azaltzen zuen, euskaraz lehenik eta gazteleraz ondoren esku orriaren alde batean; orriaren beste aldean, bakoitzaren datu pertsonalak idazteko testua euskaraz eta ondoren gazteleraz zegoen.

3.1.1.1.5. Esku egitarauak

3.1.1.1.5.1. Aste Nagusiko egitaraua

Azalean aurtengo Aste Nagusiko kartela ageri da. Kontrazalean, Casino Kursaalaren kartela, bi hizkuntzatan (lehenengo gazteleraz eta ondoren euskaraz. Kasinoaren helbidea gazteleraz bakarrik). Barruan Aste Nagusiko jarduera guztiak taula batean laburbiltzen dira, (129 euskaraz, 45 hizkuntza gabe (izen propioak dira), 32 gazteleraz eta 2 bi hizkuntzetan (euskaraz eta gazteleraz). Azkenik, Programazio liburuxkan aipatu bezala, astean zehar eta egunean zehar emango diren zenbait ekintza azaltzen dira: Aste Nagusiko III. Poker Texas txapelketa, padel txapelketa, eskulangintza azoka, karanbola billarra, Zurriola Kultura Irekia, nekazal produktuen azoka berezia, Euskararen Donostia ibilbidea eta antzerkia euskaraz, erakusketen informazioa gazteleraz; eta bi hizkuntzetan, helduentzako barrakak eta haurrentzako barraken informazioa.

3.1.1.1.5.2. Su Artifizialen egitaraua

Alde batetik euskaraz eta bestetik gazteleraz dagoen esku orria argitaratu dute. Bi azaletan aurtengo su artifizialen lehiaketako kartela ageri da, dagoen informazio guztia bi hizkuntzatan dago.

3.1.1.1.5.3. Aste Erraldoiaren esku orria

Azalean Aste Nagusiko kartela ageri da "Aste Erraldoia/Semana Gigante 2012" leloarekin (euskaraz hizki lodiagoan). Kontrazalean erraldoi eta buruhandien informazioa dakar bi hizkuntzatan (euskaraz lehenengo -hizki lodiz- eta gazteleraz ondoren). Esku orriaren barruan ibilbideari buruzko zehaztapenak bi eletan daude.

3.1.1.1.5.4. Antzerkia

Azalean Aste Nagusiko kartela ageri da "Antzerkia/Teatro Gipuzkoa plazan/Plaza de Gipuzkoa" leloarekin (euskaraz hizki lodiz). Kontrazalean, Amstelen logoa. Esku orriaren barruan, ikuskizunen informazioa dago. Ezkerrean gazteleraz (izenburuak urdinez) eta eskuinean euskaraz (izenburuak gorriz).

3.1.1.1.5.5. Folklore

6 esku orri kaleratu dituzte egun bakoitzean dantzatuko duen taldearen azalpenarekin. Guztietan Azalean Aste Nagusiaren kartela ageri da "Folklore/Folclore Konstituzio plazan/Plaza de la Constitución" leloarekin (euskaraz hizki loduz), ondoren taldearen izena (euskaraz) eta eguna (ele bitan, euskaraz hizki lodiz). Esku orriaren barruan, eskuinean dantza taldearen azalpena dator lehenengo euskaraz eta ondoren gazteleraz eta ezkerreko aldean, fitxa teknikoa euskaraz. Kontrazalean, esku orri bakoitzean taldearen logotipoa Dantza/Danza izenburuarekin.

3.1.1.1.5.6. Bandak

6 esku orri kaleratu dituzte egun bakoitzean jo behar duen musika banda bakoitzarekin. Esku orriaren alde batean Aste Nagusiko kartela ageri da "**BANDAKBANDAK**" leloarekin, ondoren musika bandaren izena eta eguna euskaraz (hizki lodiz) eta ondoren gazteleraz azaltzen dira. Esku orriaren beste aldean, lekua, eguna eta ordua (lehenengo euskaraz hizki lodiz eta ondoren gazteleraz) eta Musika banden errepertorioa dago (izenburuak jatorrizko hizkuntzan).

3.1.1.1.5.7. Arrantza txapelketa

Esku orriaren alde batean oinarriak eta informazioa euskaraz eta bestean, gazteleraz irakurri daiteke.

3.1.1.2 Kartelak

3.1.1.2.1. Orokorra

Aurtengo Aste Nagusiko kartelaren leloa "2012 Aste Nagusia" lehenengo euskaraz (hizki handiagoz eta urdinean) eta ondoren gazteleraz (hizki txikiagoan eta beltzean) dago. Lelo nagusiaren azpian data ageri da bi hizkuntzatan ("Abuztua 11-18 Agosto Donostia / San Sebastian).

3.1.1.2.2 Su artifizialak

Bertan ageri den informazioa bi hizkuntzatan dago. Izenburua lehenengo euskaraz eta ondoren gazteleraz dago (hizki txikiagoan nabarmen). Kalean jarritako egunez egungo egitarau panel handietan piroteknia etxeen izenak berezko hizkuntzan eta herrialdeen izenak euskaraz (Galizia, Frantzia, Araba...) daude.

3.1.1.2.3. Faroletakoak

Orokorra: Aste Nagusiko kartel orokorra bi hizkuntzatan zegoen.

Su artifizialekoak: Euskarazko eta gaztelerazko zintzilikarioak txandakaturik zeuden, iragarlearen leloekin eta bozkatzeko oharrekin.

Amstelekoak: Euskaraz eta gazteleraz txandakaturik.

Eraso sexualen inguruko euskarriak bi eletan zeuden.

3.1.1.2.4. Bestelakoak

Bulebar erdian, Kursaal Kuboetan, Gipuzkoa plazan, Konstituzio plazan eta Easo plazan zeuden egitarau erraldoietan euskara izan da hizkuntza nagusia (are gehiago, kasu batzuetan egitaraua euskara hutsez topatu dugu, hala nola su artifizialen pankarta, Easo plaza...).

3.1.1.3. Web gunea (www.donostiakultura.org)

www.donostiakultura.org web orrian aurkitzen da Aste Nagusiaren informazioa. Webgunea zabaltzerakoan norberak ordenagailuan konfiguratuta duen hizkuntzan irakur daiteke (euskaraz edo gazteleraz); ondoren, irekitzen den hizkuntzaren arabera euskaraz (*euskara*) edo gazteleraz (*español*) aukera daiteke. Euskarazko bertsioan honako hauek daude: egitaraua, deskargatzeko triptikoa, kartel irabazlearen eta arloka banatutako ekimenen informazioa.

3.1.1.4. Prentsa oharra, publizitatea, ...

Aste Nagusiko berriak eta prentsaurrekoetarako gonbitak euskara hutsez edo bi hizkuntzetan jaso ditugu.

3.1.2 Ahozko erabileraren neurketa

3.1.2.1 Prentsaurrekoak

Ekainaren 19an, Aste Nagusiko kartela eta Sagueseko kontzertuen egitaraua aurkeztu ziren, eguerdiko 12:00etan, Liburutegi Nagusiko Ekitaldi Aretoan. Prentsaurrekoa Nerea Txapartegik (Kultura eta Euskara delegatuak) eman zuen. Prentsaurrekoa ele bitan egin zuen euskara eta gaztelera tartekatuz. Ondoren, galdera tarteak euskaraz zabaltzeko egin zuen eta kazetarien galdera gehienak euskaraz egin zituzten. Maria Jesus Torresek ere (Donostiako Festak saileko zuzendari teknikoak) tartean interbentzio bat egin zuen euskaraz.

Abuztuaren 2an, Donostiako Aste Nagusiaren aurkezpena egin zen goizeko 11:30ean, Sarriegi plazan. Prentsaurrekoan Juan Karlos Izagirre (Donostiako alkatea), Nerea Txapartegi (Kultura eta Euskara delegatua), Naiara Sampedro (Berdintasuna, Migrazioa eta Gazteria zinegotzia) eta Aratz Trecet (Donostiako Piraten ordezkaria) egongo ziren.

Juan Karlos Izagirrek eman zion hasiera prentsaurrekoari eta egitarauaren zenbait ekintzaren berri eman zituen euskara eta gaztelera tartekatuz. Bi hizkuntzak erabili bazituen ere euskaraz gehiago egin zuen. Ondoren, Nerea Txapartegik eskema bera erabiliz euskara eta gaztelera tartekatu zituen, oro har euskaraz gehiago eginez. Jarraian Naiara San Pedrok hartu zuen hitza eraso sexisten aurkako kanpainaren berri emateko.

(euskaraz). Azkenik, Aratz Trecetek, eskerrak eman zituen, festak zabalduko dituen pregoia emateko ardura beraiei emateagatik, guztia euskaraz.

Uztailaren 26an, Su Artifizialen 49. Nazioarteko Lehiaketa eta kartela aurkeztu ziren goizeko 11:00etan, Victoria Eugenia Antzokiaren sarreran. Prentsaurrekoan Nerea Txapartegi (Kultura eta Euskara delegatua), Carmen Ubago (kartelaren egilea) eta Iñaki Agirregomezkorta Euskaltel enpresako ordezkaria egon ziren.

Nerea Txapartegik eman zion hasiera prentsaurrekoari euskara eta gaztelera tartekatuz. Jarraian, Iñaki Agirregomezkortak hartu zuen hitza euskaraz. Ondoren, euskaraz eman zuen informazio bera gaztelera eman zuen. Azkenik, Carmen Ubagok hitz egin zuen gaztelera.

Aste Nagusiari buruz behatu diren prentsaurrekoak kontuan izanda, euskararen presentzia aurreko urteekin alderatuta, nabarmen handitu da eta ondorioz, euskara eta gaztelaren erabilera nahiko orekatua izan da.

3.1.2.2 Bulegoko harrera

Donostia Kulturako bulegora telefonoz deitu edo bulegora gerturatuz gero, euskaraz egin ahal izan dugu.

3.1.2.3 Ekitaldien ekintzak oro har Donostia Kulturak antolatutakoak

BALORAZIOA ORO HAR*		
DKk antolatua	Orotara	%
HG	101	51,27
Euskaraz	37	18,78
Gaztelera	36	18,27
Beste H/ hainbat H	14	7,11
Bi hizkuntzatan	7	3,55
Bertan behera	2	1,02
Guztira	197	100,00

- Oro har diogunean aurkezpena eta ekintza beraren garapena oro har zein hizkuntzetan izan den hartzen da kontutan.

3.2 BESTE ELKARTE BATZUEK ANTOLATUTAKOAK

3.2.1 Ahozko erabileraren neurketa

BALORAZIOA ORO HAR*		
DKtik at	Orotara	%
HG	26	47,27
Gaztelera	16	29,10
Bi hizkuntzatan	6	10,90
Euskaraz	5	9,09
Beste H/ hainbat H	2	3,64
Guztira	55	100,00

4. EKITALDI MOTAREN ARABERAKO SAILKAPENA

Guztira Aste Nagusian 351 ekitaldi ezberdin antolatu dira, BAGERA Elkarteak horietatik 252 ekitaldi behatu ditu (ekitaldien %71,80). Hona hemen taula ezberdinetan atera ditugun datuak sailez sail:

4.1. HAURRAK

HAURRAK								
Eguna	Ordua	Lekua	Jarduera	Aurkezpena	Ekintza	Megafonia	Orohar	Monitorea
11	18:00	Erdialde eta Parte Zaharra	Erraldoiak eta Buruhandiak	EZ	HG		HG	
12	11:00	Bulebarreko kioskoa	Puzgarriak eta ludoteka	EZ	HG		HG	Euskaraz
12	17:30	Zuloaga plaza	ECOXOC	EZ	HG		Euskaraz*	Euskaraz**
12	18:00	Kursaal Zurriola Terraza	Munduko Arkitektura: ASIA	Euskaraz*	HG	Euskaraz*	Euskaraz*	Euskaraz*
12	18:30	Abuztuak 31	Erraldoiak eta Buruhandiak	EZ	HG		HG	
13	11:00	Bulebarreko kioskoa	Mozorro festa	EZ	HG		HG	Bi eletan
13	17:30	Easo plaza	Txantxariak	EZ	Euskaraz		Euskaraz	
13	17:30-19.30	Vimuesa plaza	Bertakoa modan dago	EZ	Gaztelera		Gaztelera	
13	18:00	Kursaaleko Zurriola Terraza	Munduko Arkitektura: Oceania	Euskaraz*	HG	Euskaraz*	Euskaraz*	Euskaraz*
13	18:30	Erdialdea	Erraldoiak eta buruhandiak	EZ	HG		HG	
14	11:00	Bulebarreko kioskoa	Puzgarriak eta txalaparta tailerra	EZ	Euskaraz*		Euskaraz*	
14	17:30	Zurriolako pasealekua	Haurrentzako eskrima	Bi eletan*	HG		Ele bitan	Bi erdaldun eta euskaldun bat
14	17:30-20:30	Vinuesa plaza	Forja erakusteko tailerra	EZ	HG		HG	HG
14	18:00	Kursaaleko Zurriola terraza	Munduko arkitektura: Europa	Euskaraz*	HG	Euskaraz*	Euskaraz*	Euskaraz*
14	18:30	Kaia	Erraldoiak eta buruhandiak	EZ	HG		HG	
15	11:00-14:30	Zurriolako pasealekua	Puzgarriak eta ludoteka	EZ	HG		HG	Euskaraz
15	11:00	Zuloaga plaza	Puzgarriak eta ludoteka	EZ	HG		HG	Euskaraz
15	17:30	Konstituzio plaza	Hipo eta Tomas	EZ	Euskaraz		Euskaraz	
15	17:30	Easo plaza	Haurrentzako airobika	EZ	Gaztelera		Gaztelera	Gaztelera
15	17:30-	Vinuesa plaza	Feltrozko Horma-irudi	EZ	HG		Euskaraz	Euskaraz

HAURRAK								
Eguna	Ordua	Lekua	Jarduera	Aurkezpena	Ekintza	Megafonia	Orohar	Monitorea
	19:30		tailerra					
15	18:00	Kursaaleko Zurriola terraza	Munduko Arkitektura: Artika	Euskaraz*	HG	Euskaraz*	Euskaraz*	Euskaraz*
15	18:30	Erdialde eta Victoria Eugenia	Erraldoiak eta buruhandiak	EZ	HG		HG	
16	11:00	Zuloaga plaza	Puzgarriak	EZ	HG		HG	Euskaraz
16	17:30	Bulebarra	Bizikleta Festa	Euskaraz*	HG	Euskaraz*	Euskaraz*	
16	17:30	Zurriolako pasealekua	Haurrentzako eskrima	Bi eletan*	HG		Ele bitan	Bi erdaldun eta euskaldun bat
16	16:00-20:00	Simona Lajust plaza	Puzgarriak eta luduteka	EZ	HG		HG	Euskaraz
16	18:00	Kursaal Zurriola terraza	Munduko Arkitektura: Afrika	Euskaraz*	HG	Euskaraz*	Euskaraz*	Euskaraz*
16	18:30	Zuloaga plaza	Erraldoiak eta buruhandiak	EZ	HG		HG	
17	11:00	Zuloaga plaza	Puzgarriak eta ludoteka	EZ	HG		HG	Euskaraz
17	17:30	Easo plaza	Haurrentzako Airobika	EZ	Gaztelera		Gaztelera	Gaztelera
17	17:30-19:30	Vinuesa plaza	Sopletea erabiliz beiraren teknika erakusteko tailerra	EZ	Gaztelera		Gaztelera	Gaztelera
17	18:00	Kursaaleko Zurriola terraza	Munduko Arkitektura: Ipar Amerika	Euskaraz*	HG	Euskaraz*	Euskaraz*	Euskaraz*
17	18:30	Kontxa pasealekua	Erraldoiak eta Buruhandiak	EZ	HG		HG	
18	11:00-14:00	Araba parkea	Puzgarriak eta ludoteka	EZ	HG		HG	Euskaraz
18	11:00	Zuloaga plaza	Tailerra eta mozorro festa	EZ	HG		HG	Euskaraz*
18	18:00	Kursaaleko Zurriola terraza	Munduko Arkitektura: Hego Amerika	Euskaraz*	HG	Euskaraz*	Euskaraz*	Euskaraz*
18	18:30	Erdialdea	Erraldoiak eta buruhandiak	EZ	HG		HG	
18	20:30	Zuloaga plaza	Erraldien eta buruhandien konpartsaren agurra	EZ	HG		HG	
13	16:00-20:00	Anoeta estadioaren aurrean	Puzgarriak eta ludoteka	EZ	HG		HG	Euskaraz
14	11:00	Zuloaga plaza	Hari margolaria	EZ	HG		Euskaraz	Euskaraz*
14	16:00-20:00	Teresa de Calcuta plaza	Puzgarriak eta ludoteka	EZ	HG		HG	Euskaraz

HAURRAK								
Eguna	Ordua	Lekua	Jarduera	Aurkezpena	Ekintza	Megafonia	Orohar	Monitorea
17	16:00-20:00	Felix Gabilondo plaza (Intx)	Puzgarriak eta ludoteka	EZ	HG		HG	Euskaraz

Euskaraz*= Bi hizkuntzak erabili badira ere euskaraz nabarmen gehiago egin da
Gaztelera*= Bi hizkuntzak erabili badira ere gaztelera gailendu da

Kursaaleko Zurriola terrazan "Munduko arkitektura"-ren hainbat herrialdeen inguruan egindako tailerretan, hiru begirale egoten ziren; bi euskaldun eta erdaldun bat. Ekimena eramaten zuenak euskaraz egiten zuen gehien bat eta erdalduna laguntzen aritzen zen. Oro har euskara zen gehien erabili zen hizkuntza.

OROTARA HAURRAK				
	Aurkezpena	Ekintza	Oro har	Oro har %
HG/Ez	32	25	22	52,38
Euskaraz	8	6	14	33,34
Gaztelera	0	7	4	9,52
Bi eletan	2	5	2	4,76
Beste H/ H anitzak	0	0	0	0
Guztira	42	42	42	100

4.2. MUSIKA

MUSIKA						
Eguna	Ordua	Lekua	Jarduera	Aurkezpena	Ekintza	Orohar
10	22:30	Trinitate plaza	Donostiako Orfeoiaren Kontzerdua	EZ	Euskaraz*	Euskaraz*
11	18:00	Vinuesa plaza	Octopu's Garden	EZ	Ingelesez	Ingelesez
11	18:15	Trinitate plaza	Goazen Kanoikadara!	EZ	HG	HG
11	18:25	Erdialdeko hainbat	Erritmoarekin Kanoikadara!	EZ	HG	HG
11	19:00	Erdialdea	The Joselontxos	EZ	HG	HG
11	19:00	Parte Zaharra	Skandalue elektrotxaranga	EZ	Euskaraz*	Euskaraz*
11	19:00	Parte Zaharra	Taupada batukada	EZ	HG	HG
11	19:00	Erdialdea	Los bebes de la bulla	EZ	HG	HG
11	19:10	Kontxako hondartzan	Mac Jeara's Band Beach	EZ	Ingelesez	Ingelesez
11	20:30	Konstituzio plaza	XXXV. Txistulari Alardea	Bertan behera	Bertan behera	Bertan behera
11	20:30-22:00	Kursaal Terraza	Rafa Rueda	EZ	Euskaraz	Euskaraz
11	22:30-01:30	Kursaal Urumea Terraza	Disco Bambino	EZ	Ingelesez*	Ingelesez*
11	23:30	Easo plaza	Cafe Irlandes	Hiru eletan	Gaztelera	Gaztelera
11	23:30	Bulebarreko kioskoa	Carmen Garmendia	Hiru eletan	HG	HG*
11	23:45	Sagues	Zea Mays	Hiru eletan	Euskaraz	Euskaraz
11	23:45	Sagues	Doctor Deseo	Hiru eletan	Gaztelera	Gaztelera

MUSIKA						
Eguna	Ordua	Lekua	Jarduera	Aurkezpena	Ekintza	Orohar
12	13:30-14:30	Kursaaleko Zurriola Terraza	Joe la Reina	EZ	Ingelesez	Ingelesez
12	18:00	Vinuesa plaza	Duo do portu	EZ	Ingelesez	Ingelesez
12	18:30	Zurriola pasealekua	Deiadar Txaranga	EZ	HG	HG
12	18:30	Erdi Aldea	Los Bebes de la bulla fanfarrea	EZ	HG	HG
12	19:00	Bulebarreko Kioskoa	Zangozako Udal Musika Banda	Hiru eletan	HG	HG
12	21:00-22:00	Kursaal Zurriola Terraza	Joe la Reina	EZ	Ingelesez	Ingelesez
12	23:30	Konstituzio plaza	Saltoka	Hiru eletan	Euskaraz	Euskaraz
12	23:30	Easo plaza	TSUNAMI	Hiru eletan	Gaztelera	Gaztelera
12	23:30	Bulebarreko kioskoa	La Moda	Hiru eletan	Gaztelera	Gaztelera
12	23:45	Sagues	Esne Beltzak	Hiru eletan	Euskaraz	Euskaraz
13	13:30-14:30	Kursaaleko Urumea Terraza	Rude Ranka	EZ	Ingelesez	Ingelesez
13	18:30	Zurriola pasealekua	Deiadar Txaranga	EZ	HG	HG
